

# XXXIV. Bideoaldia Zinemaldian

PelículaK "XXXIV. Bideoaldia"

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

LUGAR. Trueba zinema 2. aretoa

FECHA. 2022ko irailaren 22a

HORA. 19:00

ANTOLATZAILEA Donostiako Zinemaldia

**Donostiako 70. Zinemaldiko Bestelako Jarduerak Sailaren barruan, Larrotxene Bideoren 2021-2022 ikasturteko ekoizpenak proiektatuko dira.**

Urtez urte, Donostia Kulturako Larrotxene Kultur Etxeak Donostiako Zinemaldiarekin kolaboratu du, Larrotxene Bideon egiten diren lanak proiektatuz. Proiektu horiek Bideoaldia izeneko programa batean jasotzen dira. Programa horrek, batetik, Larrotxene Bideo ikastaroetako ikasleek egindako lanak biltzen ditu, eta, bestetik, Donostia Kulturako zerbitzu horrek parte hartutako koprodukzioak.

Oraingo honetan, aurtengo hautaketa irailaren 22an proiektatuko da, oso emankorra, zazpi lanekin:

**PLATAFORMA.** Komedia. 11 Minutu. Zuzendaria: Josema Aguirre.

Andoni de Carlosek emandako Gidoigintza Hastapena ikastaroan sortutako film laburra.

Eskalatzaile ezagun baten emazteak istripua izan du eta gurpil-aulkia erabili beharrean da. Senarrarekin batera, atariko eskailerak gainditzeko plataformarekin ezbehar bat izango dute. Egoerak eldarniozko amaiera izango du.

**GAUERO.** Drama. 8 Minutu. Zuzendaria: Iñigo Alkorta.

Andoni de Carlosek emandako Gidoigintza Hastapena ikastaroan sortutako film laburra.

Galderrek aplikazio mugikorrek erabiltzen ditu maitale berriak ezagutzeko. Zigorrekin elkartzeak dena aldatuko du. Edo agian ez da ezer aldatuko?

**MINUS 63 KG** Drama. 7.44 Minutuak. Zuzendaria: Deiane Moreno.

Michel Gaztanbidek emandako Gidoigintza Aurreratua ikastaroan sortutako film laburra.

Judo borroka honetan, Nekaneek Joko Olinpikoetan parte hartzea izango du jokoan.

**POLITA.** Zientzia Fikzioa. 8:58 Minutu. Zuzendaria: Eneko Muruzabal.

Michel Gaztanbidek emandako Gidoigintza Aurreratua ikastaroan sortutako film laburra.

Haragia kontsumitzea erabat debekatuta dagoen etorkizunean, sare klandestino batek elite batentzat lan egiten du behi txuletoiak ematen.

**KOADRO GORIARI HELDU.** Drama. 9:57 Minutuak. Zuz.: Iulen Arana.

Pablo Malok emandako Zinema Zuzendaritza ikastaroan sortutako film laburra.

Hermina zahar-etxe batean bizi da, desagertutako semearen erretratuarekin obsesionatuta. Martin, laguntzaile berria, zer istorio ezkutatzen duen jakiten saiatuko da.

**JONE K.** Esperimentala. 9 Minutu. Zuz. Juanmi Cuesta.

Koprodukzioa: Larrotxenen emandako ikastaroetatik kanpoko ekimenetatik sortutako proiektua.

Bi emakumek haur bat adoptatu nahi dutenean, errealitatea oso bestelakoa da ezkontuta dauden ala ez, gizon batekin edo beste emakume batekin.

**KARGA.** Drama. 16-37 Minutu. Zuz. Jose Antonio Cortés.

Koprodukzioa: Larrotxenen emandako ikastaroetatik kanpoko ekimenetatik sortutako proiektua.

Benetako gertaeretan oinarrituta, *La Carga* indarkeria homofoboaren historia bat eta horren ondorioak kontatzen ditu.

**Informazio gehiago:**

[kulturekintza@donostia.eus](mailto:kulturekintza@donostia.eus)

943 48 38 40